

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

54 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro



Boto bakoitza
kapitalismoaren aurkako
borroka indartzeko
izan dadila!

2. Editoriala: Maiatzaren 24ko hauteskundeak • 4. Burgesiaren erasoen eta gezurren aurka, defendatu dezagun Venezuelako iraultza! • 6. Langile klaseak denboran luzatuko den borroka egutegi bateratu eta eraginkorra behar du erasoak atzera botatzeko! • 8. Kolonia: Bake prozesua eta ezkerren eginkizunak • 10. Federiko Engels Fundazioaren argitalpen berria: Nadia Krupskayaren 'Recuerdo de Lenin' • 16. Ezker Abertzalearen egokitzapena argitalpenaren harira: Askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka ezin dira bereizi

Maiatzaren 24ko hauteskundeak Boto bakoitza kapitalismoaren aurkako borroka indartzeko izan dadila!

Maiatzaren 24ko hauteskundeek eta ondoren etorriko diren gainerako hauteskundeek aldaketa sakonak eragin ditzakete egoera politikoan. Podemos lehiakide berria du ezker abertzaleak, baina baita eskuina botatzeko aliatu bat ere: murrizketekin amaitzeko, gehiengo sozialaren aldeko politika egiteko eta autodeterminazio eskubidea lortzeko.

EAJ, UPN, PP ETA PSE-PSN: ELKARREKIN MURRIZKETETAN

EAJk enpleguaren eta industrializazioaren aitzindari bezala azaldu nahi du bere burua, eta, aldi berean, Euskal Herriko langile klasearen benetako errealitatea ezkutatu (EEEak, enpresa itxierak, kaleratzeak...). Estatu espainiarreko errekonstruzio ekonomikoari buruz PPk esaten dituen gezurrak Euskal Herriko egoerarako ere erabiltzen ditu EAJk, baina egoera bestelakoa da: langabezia eta prekarietatea izurrite baten moduan zabaltzen dira eta denbora luzez mantentzeko asmoa dute.

Euskal Autonomi Erkidegoan EAJk PSErekin egindako legegislatura akordio bati esker gobernatzen du, eta, aldiz, Arabako instituzioetan PP babestu du Alderdi Sozialistak. PSE kolaboratzaile bikaina izan da EAJ eta PPrentzat aurrekontuak eta murrizketa sozialak onartzeko. Hiru alderdien artean kapitalisten eta aberatsenen interesak defendatzeko taldea osatu dute langile klasea eta sektore po-

breenak gehiago zantpatzearen kontura.

Gasteizko langileen komiteak eta Gizarte Ongizatearen Foru Institutuko eta Arabako Diputazioako sekzio sindikalek honakoa salatu zuten: “las y los gestores políticos del PP han actuado estos cuatro años de espaldas a la ciudadanía alavesa y contra sus intereses, llevando estos servicios públicos, imprescindibles para las personas, a la destrucción y privatización, en busca de beneficios, convirtiéndolos en un negocio, dejando de ser un derecho. La privatización, bajo cualquiera de sus formas es un ataque a nuestro derecho a dispo-

ner de unos servicios públicos universales y de calidad, municipales, sociales, transporte, agua, vivienda, comunicaciones, cultura... que garanticen unas cotas mínimas de bienestar social para la totalidad de la población alavesa”. Araban eta Gasteizen PPk EAJren eta PSEren babesari edo isiltasunari esker aplikatu ditu neurri hauek, eta antzeko politika egin da EAJ, UPN, PP eta PSE-PSN agintean egon diren herrialdeetan, hiriburuetan edo herrietan.

Estatu mailan PPk egin duen bezala, osasun eta hezkuntza publikoa izan dira EAJren eta UPNren jo puntu. Osasun publikoaren eta bertako langileen aurkako erasoaldiari aurre egiteko hainbat mobilizazio antolatu dituzte azken hilabeteetan ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek ekintza batasunean. Honen erakusgarri izan ziren apirilaren 23 eta 24an sindikatuek antolatutako grebak. Hezkuntzako sektorean, berriz, mi-



laka eta milaka ikasle mobilizatu dituzten hainbat manifestazio eta greba antolatu dituzte azken urteetan Ikasle Sindikatuek eta Ikasle Abertzaleak. Kasu honetan ere argi geratu da bai EAJk eta baita UPNk ere begi onez ikusi dituztela praktikan Madrildik datozen Wert ministroaren erasoak, hezkuntza publikoa eta euskara modu basatian erasotzen dituzten neurri frankistak.

EZKER ABERTZALEAREN AUKERA INSTITUZIOETATIK LANGILE KLASEA DEFENDATZEKO

Hauteskundeek aukera ematen diote ezkerari Euskal Herriko diputazio eta udaletxeetatik eskuinaren politikari aurre egiteko. Beharrezkoa da bukaera ematea EAJ, UPN, PP eta PSE-PSNren ustelkeriari, zerbitzu publikoen pribatizazioari, administrazio publikoko lan prekarietateari eta diru publikoaren lapurretari. Posible da instituzioetatik aurre egitea PPren arrazakeriari, UPNren espagnolismoari edo EAJren politika prokapitalistari, eta aldi berean eremuak irabaztea gehiengo sozialarentzat, langile klasearentzat eta gazteriarentzat.

Nafarroan eta EAEn langabezian dauden herritarrak defendatzeko, euskara, ingurumena, osasun eta hezkuntza publikoa defendatzeko, beharrezkoa da martxan dauden pribatizazio prozesuak geldiaraztea eta dagoeneko pribatizatuta dauden zerbitzuen erreskate publikoa egitea. Oinarrizko neurri hauei bankaren eta ekonomiako sektore estrategikoen publikazioa gehitu behar zaizkie langile klaseak baliabide hauek guztiak



gehiengoaren onurarako demokratikoki planifikatzeko.

Funtsezkoa da masen parte hartzea erabakietan. Erabakitzeko eskubidea izan behar dugu eragiten diguten oinarrizko auzi guztietan, eta ez soilik lau urtez behin bozkatu. Beharrezkoa da zerbitzu sozialak, osasun eta hezkuntza publikoa, etxebizitza eta enplegu duina defendatzeko botere instituzionala erabiltzea borroka maila altuago batean antolatzeko.

Aukera handiz betetako urtea izango da ezkerarentzat, eta bereziki ezker abertzalearentzat. Antolakuntzarekin eta hauteskundeetan lortutako babesarekin, kaleetan sakabana-tuta dauden mobilizazioak bateratuta, etorkizuna aldatzeko aukera garrantzitsua dago. Borroka honetan langile klaseak eta bere erakundeek funtsezko papera jokatu behar dute, bere zigilua jarri behar dute. Langileok gure indarretan bakarrik izan behar dugu konfiantza Euskal Herriaren eskubide demokratikoak lortzeko eta gizartearen eraldaketa soziala eskuratzeko. Horregatik, gure ustez beha-

rezkoa da ezker abertzaleak alde batera uztea EAJri luzatutako eskua. Gehiengo sozialaren babesa lortzeko modu bakarra kapitalismoari aurre egingo dion programa da, EAJk sekula defendatuko ez duena. Kapitalismoaren markoan eta euskal burgesiarekin akordiora iritsita, ez da posible Euskal Herriaren eskubide demokratikoak lortzea, autodeterminazio eskubidea barne. EAJ ez da irtenbidearen zati, arazoaren erantzule nagusi baizik.

Euskal Herrian eta Europa osoan “demokrazia” deitutako hitz eder horren atzean kapital handiaren diktadura dago, banku eta multinazionalen agintea, EAJk, UPNk, PPk eta PSE-PSNko agintari sozialdemokratikoen defendatzen duten berbera. Eskubide demokratiko nazionalen aldeko borroka, autodeterminazio eskubidea eta lurralde batasuna barne, gizartearen eraldaketa sozialistari lotuta daude, ezin dira bereizi: langile klase bateratuak, herriko sektore zapalduak eta gazteriak bakarrik aurrera eramane dezaketen borroka berbera dira.

EAJ, PP eta PSOE kolpista venezuelarrak babesten ari dira!

Burgesiaren erasoan eta gezurren aurka, defendatu dezagun Venezuelako iraultza!

Martxoaren hasieran Venezuelako egoera AEBetako segurtasun nazionalarentzat "mehatxu" zela adierazi zuen Obamak. Egun batzuk beranduago, Europako Parlamentuak "errepresaliatu politikoak" askatzearen aldeko erresoluzio bat onartu zuen. Horrela aurkeztu zituzten komunikabideek ere hainbat estatu kolpe saiakeretan parte hartu duten Leopoldo Lopez eta Antonio Ledezma ultraeskuindarrak. Gertakari hauek erakusten dute inperialismoaren eta eskuin internazionalaren erasoaldiak gogortu egin direla Venezuelako iraultzaren aurka.

IBON ARTOLA

Nazioarteko kanpaina honetan parte hartzen dute, besteak beste, PP, PSOE eta EAJk. Ledezmaren emazteak Estatu espainiarrean egindako biran egin zioten lehen elkarrizketa FAESen egoitzan izan zen Aznarrekin. Gogoratu behar dugu honen gobernuak Hugo Chavezen aurkako estatu kolpea babestu zuela 2002an (EAJk bezala, bereziki Iñaki Anasagastiren bitartez). Ondoren Ana Botella, Cospedal eta Rajoyrekin bildu zen. PSOEko zuzendaritzaren jarrera ez da oso desberdina. Felipe Gonzalez buru belarri aritu da Lopez eta Ledezma kolpistak defendatzen. Eta nola ez, EAJ kanpaina honetara gehitu da. Pasa den apirilaren 14an Madrilgo kongresuan PP, PSOE, CiU eta UPyDrekin batera bozkatu zuen Venezuelako gobernuaren aurka eta kolpista hauen askatasunaren alde.

Beharrezkoa da PPK, PSOEek eta EAJk defendatu dituzten hauen ibilbide politikoa eta ekintzak eza-gutzea. Antonio Ledezma bere garaian gobernuan egon zen Acción Democrática alderdiko diputatua

izan zen. Gobernu hark Nazioarteko Diru Funtsaren (FMI) neurriak aplikatu zituen eta 1989ko otsailaren 27an "Caracazo" bezala ezagutu zen leherketa sozialaren errepresio odoltsua antolatu zuen. 3.000 gazte eta langile inguru erail zituzten. 2002ko apirilean Estatu kolpea babestu zuen, eta Chavez bahitu eta erailtzen saiatu ondoren, berme konstituzionalak berta behera utzi eta ezkerreko militanteak jazarri zituen. Estatu kolpe hura masen mo-

bilizazio erraldoiak garaitu zuen. Ordutik hona, Antonio Ledezma konspirazio kolpistetan murgilduta ibili da, azkenekoa Jericoko ekintza.

Leopoldo Lopez Familia, Tradición y Propiedad sekta faxistako militantea izan zen. Chacaoko alkatea izan zenean etxe kaleratzeak eta beste neurri neoliberal batzuk bul-tzatu zituen. Alvaro Uribe presidente ohi kolonbiarraren aholkulariez inguratu zen Venezuelako estrategia kontrairaultzaileak garatzeko eta bere hainbat kolaboratzaile prozesatuak izan dira narkotrafikoarekin eta paramilitarrek izandako harremanengatik.

EAJren, PPren eta PSOEren zuzendaritzaren jarrera klaseko gorrotoa da. Venezuelako gobernuari egiten dizkioten erasoek ez dute zerikusirik eskubide demokratikoen defentsarekin. Kapital handiaren aginduak betetzen ez dituen gobernuarekin bukatu nahi dute kosta ahala kosta. Eskuinak eta sozialdemokratiak murrizketen politikak eta pribatizazioak nahi dituzte masa vene-



zuelarrentzat eta latinoamerika-
rrentzat. Hau da benetako arrazoia!

Diktadura dago Venezuelan? Azken hamazazpi urteetan (iraultza hasi zenetik) Venezuela izan da hauteskunde gehien ospatu dituen herrialdea: hoge! Herriak behin eta berriz iraultza bolivartarra babestu du hauteskunde hauetan, eta oposizioak irabazi zuen bozketa bakarra (2007ko erreforma konstituzionalaren erreferenduma) onartu egin zuten Chavez eta bere gobernuak.

Bitartean, Juan Manuel Santos presidente kolonbiarra askatasunaren eta demokraziaren eredu bezala aurkeztu nahi digute, milaka nekazari eta sindikalisten hilketaren arduradun nagusi dena. Gauza bera esan daiteke Mexikoko Peña Nietoren gobernuaz. Erregimen atzerakoi eta basatia da, narkotrafikoarekin fusionatuta dagoena, azken zortzi urteetan 70.000 hilketa eta 23.000 desagerketa baimendu dituen. Azkeneko kasu esanguratsuenetako bat Estado de Guerreron bizirik erretako 43 ikasleena da. Zer esan dute Urkullu, Rajoy eta Pedro Sanchezek gertakari hauei buruz? Ikasle hauen hilketa bero-bero zegoenean Urkullu Mexikon zen bertako enpresari handi eta mota guztietako "mafiosoekin" negozioak egiten. Horietako bat Peña Nieto presidentea izan zen. Hori bai, Urkulluk ez zuen txintik ere esan bizirik erre zituzten ikasleei buruz, inolako kexarik ez eskubide demokratikoei buruz!

INPERIALISMOA VENEZUELATIK KANPORA! BOTERE POLITIKO ETA EKONOMIKO GUZTIA LANGILE VENEZOLARRENTZAT!

Chavez hil eta Madurok hauteskunde presidentzialak irabazi ondoren, inperialismoak eta burgesia venezuelarrak iraultzaren aurkako eraso gogortu dute. Alde batetik sabotaje ekonomikoa erabiltzen dute. Burgesia venezuelarra klase erabat parasitarioa da eta nahiago du dolarrekin espekulatu, kanpoan merke erosi eta barruan garesti saldu, herrialdean ekoiztu beharrean. Honek inflazioa eta eskasia sortzen ditu.



Sabotaje ekonomikoaren helburua masak desmoralizatzea eta iraultza-
ren oinarri soziala ahultzea da.

Bestetik, aurrekoarekin konbinatuz, bide kolpista dago. Azkeneko saiakera Jericoko ekintza izan zen. Antonio Ledezma berak antolatutako eta graduazio baxuko hainbat militar atxilotu zituzten. EAJ, PP eta PSOEk defendatzen dituzten "demokrata" hauek gobernuaren erantsi nahi dute eta ez dute inolako arazorik langileak, ikasleak eta ezkerreko militanteak hiltzeko. 2014ko urriaren 1ean adibidez, sikario kolonbiarrak PSUVeko Robert Serra diputatua hil zuten. Serraren hilketari iraultzaren urte hauetan eskuinak eraildako ehunka langile eta nekazari gehitzen zaizkio. Hau da langile klaseak eta herri venezuelarrak izango dutena eskuinak garaitzen badu: beren aurkako mendeku faxista eta kriminala.

Beraz, beharrezkoa da Venezuelako iraultza defendatzea inperialismoaren erasoaldiaren aurka. Nicolas Maduroren gobernuaren erorketa Venezuelako diktadura faxista bat ezartzeko lehenengo pausoa izango litzateke. Noski, inperialismo estatu-batuarra eta europarra demokrazia barniz bat ematen saiatuko lirateke. Hori egin dute Egipton Al Sisiren erregimen kriminalarekin edo erregimen ukrainar faxista berriarekin.

Funtsezkoa da Venezuelako benetan gertatzen dena kontatzea. Baina honekin batera, Venezuelako iraultzaileak defendatzen ari diren bezala, kolpismoaren arriskua eta sabotaje ekonomikoa garaitzeko oinarri-

koa da kapitalistak desjabetzea eta botere politiko osoa masek hartzea, estatu aparatuan dauden sektore atzerakoiak deuseztatuz. Bide honetan aurrera egiteko, iraultza osatzeko, beharrezkoa da estatu aparatuko eta PSUVeko burokrazia erreformistaren erresistentzia puskatzea, hau baita kontrairaultza kapitalista sostengatzen duen hanketako bat. Burokrazia ustel honek milaka negozio eta harreman ditu eskuinarekin eta kapitalistekin. Sozialismoaz, iraultzaz eta Chavez buruz hitz egiten betetzen zaie ahoa, baina bitartean aberats eta milioidun bihurtzen ari dira eta herriaren gaineratik jarri nahi dira iraultza gelditzeko eta honen porrota prestatzeko.

Inpunitaterik ez kolpistekin! Akordiorik ez burgesiarekin! Esperientziak erakusten du ez dagoela hirugarren biderik, iraultza ezin dela erdizka geratu. Gobernu bolivartarrak azken garaian oposizioari egindako kontzesioek lortu duten gauza bakarra hau animatzea da. Iraultzak ikasgai honetatik ikasi behar du. Kolpista, ustel eta espekulazio guztiek espetxera joan behar dute. Baina, gainera, espekulazioarekin, ustelkeriarekin eta sabotaje ekonomikoarekin amaitzeko, eta herriak sufritzen dituen arazoak konpontzeko (inflazioa, eskasia, burokrazia...) kapitalistak desjabetu behar dira. Ekonomia eta Estatua langileen administraziope zuzenean egon behar dute. Horrela bakarrik da posible kontrairaultzaileak behingoz garaitzea eta sozialismoa errealitate bihurtzea.

Langile klaseak denboran luzatuko den borroka egutegi bateratu eta eraginkorra behar du erasoak atzera botatzeko!

2014ean 2013an baino %39,6 greba gutxiago izan ziren EAEn. Guztira 54.655 lan egun galdu ziren greben ondorioz, 2013an baino 87.817 gutxiago. Nafarroan berriz %50eko jaitsiera izan zen, 12.269 lan egun huts egin ziren grebengatik, 2013an baino 36.484 gutxiago. Garbi dago mobilizazioen beherakada hau ez dela Euskal Herrian lan gatazkak gutxitu direlako izan, ezta espainiar gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak iragartzen duten errekonfigurazio ekonomikoagatik ere. Aitzitik, 2015eko otsaila bitartean, 2014 osoa barne, Eusko Jaurlaritzak 2.515 langileri eragiten dieten 170 erregulazio espediente jaso ditu. Gainera, gaur egun 99.689 langile daude hitzarmenik gabe EAEn eta langabezia tasa %14,8koa da.

J. L. CARIÑANOS

Egoera honetan, ugari dira hainbat sektoretan eta hainbat lekutan piztu diren lan gatazkak. Batzuk aipatzearen, Gasteizko ECN (Cablenor) enpresa dugu, enpresak 147 langileak kaleratuz lantegia itxiko zuela iragarri ondoren, langileek hilabeteetako borroka eraman dute aurrera, gaur egun 87 langile daude. Erakundeek, bai Eusko Jaurlaritzak, bai Arabako Diputazioak eta bai Gasteizko Udalak, enpresa komiteko sektore baten laguntzaz, usteko erosle baten esperantza hartzatu dute langileak desmobilitatzeko asmoz. Erosle hau ez da inoiz iritsi eta azkenean kalera-tzeak langile guztiei eragin die.

Bestalde, Cegasak 2014ko martxoan hartzaileen lehiaketa eskatu zuen; urte bereko apirilean erregulazio txosten bat eskatu zuen lan orduak %50era murriz-

teko langile guztiei, 500 guztira. Pasa den abenduan, epaile batek enpresa egoitza Madrilen duen "Sherpa" izeneko arrisku kapital funtsari saltzea baimendu zuen, eta honek 320 langile kaleratzea eskatu zuen inolako kalte ordainik gabe. Aurtengo martxoan kaleratzeak gauzatzen hasi dira.

Condesa Taldeak 2014ko uztailean hartzaileen aurrelehiaketa aurkeztu zuen 325 milioi euroko zorra zuela esanaz. Azaroan zuzendaritza akordio batera iritsi zen Arcellor Mittalekin eta Banco Santander, BBVA, Caixa Bank, Banco Popular, Sabadell eta Bankia bezalako banku taldeekin. Langileei ez zitzaizkien inbertitzaile horiek zituzten lan planen informaziorik eman.



Gatazka hauetan guztietan eta beste askotan, adibidez Bergarako Candy Hoover-ekoan, Gasteizko Laminaciones Arreguikoan, Bizkaibusekoan, EITB-koan, Otsakidetzakoan, etab., langileek azaldu dute borrokarako borondatea antolatu dituzten mobilizazioetan ikusi den bezala. 2014an lan gatazkak jaitsi izanaren arrazoa zuzendaritza sindikalek izandako erantzun eskasa izan da. Patronalen eta administrazioaren eskutik jasaten ditugun erasoen aurka borrokatzeko mobilizazio estrategia bat planteatu ordez, esaterako borroka elkartzuz eta zabalduz, gehiago sindikalaren estrategia gatazka bide judizialetik eramatea eta borroka enpresaz enpresa mantentzea izan da. Estrategia hau okerra da, langileen borroka bateratu eta sendoa baita erasoak geldiarazteko modu bakarra. Epaileen erabakiak langileen aldekoak izan daitezten, beharrezkoa da epaileen aurkako presio soziala egitea, izan ere, estatu burgesaren egitura judizial osoa kapitalisten interesak defendatzeko diseinatua baitago. Hala lortu ziren, esaterako, Corrugados Azpeitiako, CAFeko eta Laminaciones Arreguiko langileen borroka irabaztea, eta berrikiago hala lortu da estatu espainiarrean Fuenlabradako Cola Colaren erregulazio txostena nultzat hartzea. Epaia irabaztea, ordea, ez da nahikoa Corrugadoseko adibideak erakusten duen bezala. Nahiz eta EAEko epaitegi gorenak langileei arrazoi eman, enpresak helegitea jarri zuen kaleratze planak aurrera egitea lortu arte. Halaber, Laminacionesen kasuan epaia langileen aldekoa izan arren, enpresak beste erregulazio txosten batekin erasotu du, eta



oraingoan 84 langile kaleratuko dituela iragarri du. Hori dela eta, borroka kalean ere mantendu behar da eta langile klase osoaren babesa eta elkartasuna lortu. Horretarako, gatazkak sozializatu behar dira, borrokan dauden langileen eskariak langile klase osoaren eta gazteriarren aldarrikapenekin lotuz, kapitalismoak eragiten duen esplotazioarekin eta zapalkuntzarekin amaituko duen programa bat eskainiz mugimenduari.

Hori dela eta, hainbat kolektibo sozial eta erakunde sindikalek landutako Karta Sozialaren defentsa pauso positiboa da, baina ez da nahikoa. Honen aldeko mobilizazio isolatuak antolatzeak ezin ordezka dezake langile klasearen borroka antolatu eta etengabea. Gehiago sindikalak mobilizazioaren bidea hartu behar luke, greba orokorrak egutegian sartu eta beste eragile sindikalekin ekintza batasuna bilatu.

Bestalde, fronte politikoan Karta Sozialaren edukiak honen helburuak bete daitezten bermatu behar du. Beharrezkoa da tinko eta anbiguotasunik gabe borrokatzea langileen borroka bidez lortutako eskubide

sozialen alde eta EAJk eta UPNk aplikatutako murrizketa eta erasoen aurka. Horretarako ezinbestekoa da EHBilduko agintariek EAJrekin fronte soberanista osatzeko hitzarmen eta elkarrizketa estrategia baztertzea eta agerian uztea estatu espainiarrean PPK aurrera daraman politika atzerakoiekin duen konplizitatea. Langile klasearen borroka bateratu eraginkorrak bakarrik lortuko du eskubide demokratiko eta sozialak konkistatzea.

Horrezaz gain, garbi utzi behar da Kartak jasotzen dituen aldarrikapenak ezin lor daitezkeela erakunde burgesekin eta beren egitura politiko osoarekin amaitu gabe. Gizartearen gehiengoaren aldeko neurriak defendatzeko modu bakarra gizartearen aldaketa sozialistaren aldeko borroka tinkoa da; ekonomiaren oinarritzok palankak, bankuak eta multinazional handiak gizartearen eskura pasatu behar lirateke eta langileek eta beren erakundeek demokratikoki kontrolatu behar litzakete gizartearen gehiengoaren beharrak asetzeko eta egungo desberdintasunekin eta zapalkuntzarekin amaitzeko.

Kolonbia: Bake prozesua eta ezkerren eginkizunak

Apirilaren 9an, ehunka mila pertsona mobilizatu ziren herrialde osoan FARCen eta Kolonbiako gobernuaren arteko elkarrizketa prozesuari babesa emateko. Milioika gazte eta langilek esperantzaz ikusten dute elkarrizketa 60 urte baino gehiagoko gatazka armatuaren ostean eta beraien bizitzak hobetu eta atzeratuta gelditu diren errebindikazioen alde baldintza hobeagoetan borrokatzeko aukera bezala identifikatzen dute bakea.

AITZOL ARRIBILAGA

Elkarriketaren inguruko jarrerak areagotu egin ditu urteetan klase dominatzaile kolonbiarraren baitan egon diren zatiketak. Elkarriketa babesten duen burgesiaren sektorearen (egungo presidentea den Santosen inguruan batu dena) eta FARC eta ELN-ko gerrillariekin edozein akordio lortzearen aurka dagoen burgesiaren sektorearen (Uribe presidente ohiak zuzenduta dagoena) arteko zatiketaren arrazoia ez da batzuk "aurrerako" edo "demokratikoak" direla eta besteak erreakzionarioak. Alde batetik, bi sektore hauek borrokan ari dira estatu aparatuaren kontrola lortzeko, eta bestetik, posizio desberdinak defendatzen dituzte krisi ekonomikoari eta azken urteetan areagotu den mobilizazio sozialari aurre egiteko. Izan ere, borroka garrantzitsu eta esanguratsuak ikusi dira Kolonbian azken urte hauetan: hezkuntzako kontraerreforma atzera botatzea lortu zuen ikasle borroka, langile borroka ga-

rrantzitsuak (kanabera moztailena, meatzariena, garraiolariena...) indigenen mobilizazioak, herrialdearen zati garrantzitsu bat geldiaraztea lortu duten nekazarien lanuzteak... Kaleko borroka hau geratzeko da burgesiako bi sektoreen helburu nagusia.

BAKEAREN ALDEKO MOBILIZAZIOEK EZKERRERAKO BIRA ADIERAZTEN DUTE

Ezkerrerako bira garrantzitsua eman da herrialdean. Hori iku-

si da bai hauteskundeetan eta baita kalean ere. 2002az geroztik, herrialdeko alkatetza garrantzitsuenean, Bogota DCn, ezkerreko hautagaitzen garai-pena eman da, eta iaz Gustavo Petro alkate bogotarraren gaitasungabetzea saihestea lortu zuten mobilizazio erraldoia izan zen. Burgesia, Errepublikako fiskal orokorraren eskutik (Uriberen sektorekoa da), Petro agintzeko gaitasunik gabe uzten saiatu zen honek paramilitarrekin lotura zuen zaborra biltzeko enpresa pribatu bati kontratua moztu eta zerbitzua municipalizatu zuelako. Herri mobilizazioak Santos presidentea behartu zuen, hasieran eskuak garbitzen saiatu bazen ere, gatazkan esku hartzera protesten erradikalizazioa eta zabalkuntza geratzeko.

2014ko hauteskunde orokorretan ezkerren potentziala ikusi zen berriz ere. Lehen itzulian Polo Democrático Alterna-





tivoko (PDA) Clara Lopez hautagaiak bozken %15 lortu zuen (bi milioi) Santosen aurkako haserrea ezkerretik batuz. Aurreko hauteskundeekin alderatuta bost aldiz biderkatu zuen emaitza. Santosek berriz hiru milioi bozka galdu zituen. Hautagai uribistaren aurrean Santosek bigarren itzulian lortutako garaipena ezkerreko hautesleen mobilizazioaren ondorio izan zen. Lehen itzulia Uribekek babestutako hautagai batek irabazi ostean (krisiaren eta segurtasun faltaren ondorioz sektore atzeratu eta desesperatuenek duten haserrea manipulatu) milioika langilek Santosen aldeko bozka eman zuten bake prozesuarekin amaituko zukeen gobernu uribista saihesteko.

Santosek diskurtso erabat demagogikoa erabiltzen du “bakeaz”, “demokrazia”, “erreformez” eta “justizia sozialaz” hitz egitean. Lehendakariorde eta Lan Ministro bezala ezkerreko eta sindikatuetaiko agintari batzuk ipini ditu bere politika ekonomikoak mozorrotu eta ez-

kerreko agintariak bere asmotara erakartzeko. Jokabide honen helburu bakarra deskontentu sozialari eustea da. Baina munduko ekonomia kapitalistaren krisiak, azkenaldian petrolioaren prezioaren jaitsierarekin adierazia (petrolioaren ekoizten duen Kolonbia bezalako herrialde batean eragin handia izaten ari da), bere benetako aurregia erakusteko joera du. Honen ezinezko bihurtuko du masen haserrea baretzea.

AZERIAK ISATSA LUZE

Praktikan Santosen neurriak neoliberalak dira. Estatu kolonbiarrak besteak beste lan erreformak eta privatizazioak onartu ditu. Neurri aurrerakoi gisa mozorrotu nahi ditu enpresariei esperientziarik gabeko gazteak (langabetuen %60) kontratatzeke dirua oparitzea bezalako neurriak. Gazte horiek ez dituzte gainerako langileen eskubide berberak izango, esklaboak bezala esplotatuak izango dira, eta langile mugimenduaren borroka eta antolakuntza oztopatzeko erabiliko dituzte.

Gauza bera gertatzen da bake prozesuarekin. Santosek eta hau babesten duen burgesiak inoiz ez dute nekazal erreformarik egingo, ez dute aberastasuna banatuko berdintasunean oinarritua eta ez dizkie paramilitarrek (beraiek babestu eta finantzatu zituztenak) kanporatutako nekazariei beren lurrak itzuliko. Ez dituzte eskubide demokratikoak eta lan eskubideak nabarmenki hobetuko. Akordioaren alde agertzen diren burgesia nazional eta internazionalaren sektoreek gerri-llen desmobilizazioa espero dute orain FARCEk eta ELNk dituzten lur sailak multinazionalen inbertsioetara zabaltzeko eta elikagai eta erregai transgenikoen merkatuan lehiatu ahal izateko.

Gobernua eta Estatu aparatua burgesiak kontrolatzen dituen bitartean edozein bake akordio tranparekin eta faltsukeriekin etorriko da, historia kolonbiarrean eta latinoamerikarrean beti gertatu den bezala. Ezkerreko ordezkariak akats larria egingo dute Santosen politikaren atzetik jarraitzen badute, hau aurrerakoitzat aurkeztuz edo Uriberekin alderatuz hobe dela esanez. Ezkerraren zatiketak gaintuz, bakearen aldeko mugimendua eta berreskuratu den azken urteetako masen mobilizazioa fronte bakar batean biltzea da gakoa. Beharrezkoa da klaseko programa bat, bakearen aldeko borroka kaleko mobilizazio sozialarekin elkartuko duena (lurraren banaketa, langabezia, murrizketak, privatizazioak, pobrezia...), eta hau dena gizartearen eraldaketa sozialarekin uztartuko duena.

Federiko Engels Fundazioaren argitalpen berria:

Nadia Krupskayaren 'Recuerdo de Lenin'

Federico Engels Fundazioak *Recuerdo de Lenin* liburua argitaratu berri du. Liburu hau Nadia Krupskayak idatzi zuen, Leninen militantzia kide eta bikotea izan zenak, lider boltxebikea hil eta 10 urtetara, hau da, 1934an. 1893 eta 1907 bitarteko garaia jasotzen da idazlan honetan, Lenin Petersburgora iritsi eta Krupskaya ezagutzen duenetik 1905eko iraultzaren porrotaren ondoren, Ginebran bere bigarren erbesteratzea hasten duen arte.

IKER OTERMIN


Liburu honen gaztelerazko lehen argitalpena 1937an kaleratu zen iraultza soziala eta faxismoaren aurkako gerra bete betean zegoenean eta orain dela 40 urte editatu zen azken aldiz, 1976an, diktadura frankistaren aukako langile borrokaren momentu gorena-rekin batera.

Edizio hau ere berebiziko garrantzia duen aldi historiko batean argitaratu da. Hogeita hamargarren hamarkadatik egon den mundu mailako kapitalismoaren krisirik sakonenean eta luzeenean gaude. Oso gogor eragin du ekonomian eta gizartean, eta diktaduraren erorketatik izandako protesta sozialeko mugimendu handiena eragiten ari du. Horregatik, egungoa bezalako astinaldi politiko handien garaietan, beharrezkoa da gazte iraultzaileen belaunaldi berriek historiak ezagutu duen iraultza sozialik erradikalenaren eta sakonenaren buruan egon zen mugimendu marxistako pertsona-

rik garrantzitsuenetakoaren bizitza eta ekintza politikoa ezagutzea.

Krupskayaren lanak Lenin nolakoa zen azaltzen digu, borroka politikoa hartzeko zuen modua, nola idazten eta lan egiten zuen, zer interesatzen zitzaion, bere literatura gustuez, lagunez eta kideekin eta kolaboratzaileekin zituen erlazioez, bere familiaz, lorik gabeko gau ugarienez, Londreseko langile auzoetako bere ibilaldiez....

Kontakizun guztian, Krupskayak Vladimir Ilichen egunerokotasuneko gertaerak eta xehetasunak azaltzen ditu bizitzako proiektu garrantzitsuena zuenaren barnean kokatuz, hau da, alderdi iraultzailearen erai-kuntzarekin lotuz. Bere bizipen eta gorabehera guztiak lan politiko jakin bateko marko komunean bildurik geratzen dira horrela, salbuespenik gabe bere existentzia guztia baldintzatu baitzuen horrek: kartzela eta Siberiako deportazioa, bere bidaia eta erbestea, etxe eta iden-



titate aldaketak, bizitoki izan zituen hiri ezberdinak (Munich, Londres, Paris, Ginebra, Petersburgo), bere lagunak eta afizio pertsonalak...

ALDERDI IRAULTZAILEAREN ERAIKUNTZARA ENTREGATURIKO BIZIA

Leninen bizitza Errusiako alderdi iraultzailearen aldeko borrokaren kronika da, baliabideen eskasiarekin zituzten zailtasun ikaragarriena eta tsarismoaren errepresio gogorrarena, kausara batzen ziren pertsonen-gatiko ilusioarena nahiz atzera egiten zuten kideekin harturiko atsekabeena. Krupskayak, formakuntzaz pedagogoa izanik, hari honi eusten dio liburu guztian zehar eta muturrera eramaten du, batez ere amaierako zatian. Liburuaren eranskinak pedagogia militanteko benetako instrumentu bihurtzen dira, modu leninista batean jorratuz iraultzaile ororen lan praktiko-



an berebiziko garrantzia eta erabilgarritasuna duten auziak.

Nola lan egiten zuen Leninek, nola zuzentzen zen langile-engan, nola erakusten zien iraultzaileei hitz egiten eta idazten, nola funtsatzen zituen bere lanak obsesiboki datu frogatuen gainean, irakurtzeko eta idazteko azkartasuna, nola egituratzen zituen bere idatziak, programa langileei ahalik eta modu argi eta zuzenenean helarazteko zuen ardura etengabea...

Zein ziren bere borroka metodoak, nola enfokatzen zituen funtsezko auzien eta printzipioen inguruko eztabaidak, kongresuek hartzen zuten garrantzia dena erabakitzeke inolako mugaketa pertsonal edo antolakuntzakerik gabe, alderdiaren erdigune antolatzaile gisa balioke zuen aldizkari bat argitaratzeko borroka, bertako erredakzio komitearen garrantzia, inprimaturiko "hitz bakoitza pisatzeko" beharra, argitalpen eta literatura iraultzailearen hedapen klandestino...

Krupskayak Leninen bizitza pertsonalaren kontakizuna in-

dartzen du urte horietan sortu ziren auzi politiko handiekin batera uztartuz: lehen fase hartan izan zen liberalen, populisten eta "ekonomisten" aurkako borroka ideologikoa lehen nukleo sozialdemokratak sortzeko, alderdia eratzea, antolakuntza arazoak, bere lehenengo kongresuak, boltxebikeen eta mentxebikeen arteko zatiketa 1905eko Iraultzan erabilitako programa eta taktika bateragaitzez geroztik.

Modu horretan, ikuspegi orokor bat eraikitzea lortzen du liburuak, eta elementu guztiek elkar eragiten dute. Baina ikuspuntu global horren barnean, edozeren gainetik gailentzen eta azpimarratzen dena Leninen izateko era da, bere jarrera sortzen ziren eginkizunen eta arazoen aurrean, bere borondatea eta indarra, bere dedikazio osoa eginkizun sinpleenari ere, bere disposizio osoa nola lan teoriko mamitsu bat idazteko, hala hiru egun inprentan sarturik igarotzeko ere, agitazio orri bat garaz ateratzeko beharrezkoa baldin bazen; ingurukoei transmititzen zien pasioa, lorik egin gabeko gauak, nerbioen dantza eta

desgaste pertsonala arduren pilaketaren aurrean.

Krupskayak Leninen bizitza politikoa eta idazlanak deskribatzen ditu, artikulua, liburuak eta idatziak aztertuz, beren testuinguruan kokatuz eta horietatik momentu hartan jokatu zuten papera azpimarratuz. Horrela, beraz, grinez hitz egiten du 1903ko Nekazari pobreei eskainitako eskuorriaz, Leninek Kautskyren *1905eko Errusiako Iraultzaren indar eragileak* liburuari egin zion hitzaurreaz edo fabriketan langileei ezarritako isunei buruzko idatziez. Idazlan horiek liburu bikain honen etorkizuneko edizio batean ere sartu litezke, seguru ordea, ez direla beste berrogei urte igaroko berriro argitaratu arte.

Azken batean, liburu laburra eta irakur erraza da bere forman, duen estilo erraz eta pedagogikoagatik, baina aldi berean garrantzitsua ere bai, iraultzaile marxista handiaren bizitza azaltzen eta ulertzea baimentzen digun analisi politikoaren kalitateagatik.

'Ezker Abertzalearen egokitzapena' argitalpenaren harira

Askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka ezin dira bereizi

KONTRAPORTADAN HASTEN DA eta zein ordenatan uztartzen diren zehaztea" (...) "Hitz batean, independentzia euskal sozialismoaren garapenaren lorpen gisa planteatu beharko litzateke. Horrenbestez, euskal eredu sozialistaren garabideek aintzat hartu beharko lituzkete proiektu independentistaren beharrak (aliantzak, metodoak, diskurtsoak, mezuak...). Hau da, proiektu iraultzaile demokratiko sozialistaren barruan independentzia izan go da lehen geltokia".

Noski, hau ez da eztabaida berri bat. Ezker Abertzalea sortu zenetik, eztabaida hau beti egon da maila altuago edo baxuagoan. *Euskal Herria Sozialistatik* gure ekarpena egin nahi dugu ikuspuntu marxista, internazionalista eta iraultzaile bat eskainiz. Gure ustez, askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka ezin dira bereizi, ez daude erdibideko etapak. Zapalkuntza kapitalistan oinarritutako eta euskal burgesiarren menpeko Euskal Herria erai-

kitzea ezin da izan inolako alternatiba edo "etapa".

Beharrezkoa da Euskal Herriko klase dominatzaileko sektore horiekin mota guztietako aliantzak edo fronteak puskatzea. Euskal burgesiak behin eta berriro traizionatu du Euskal Herriko langile herria, eta nahiago izan du burgesia espainiarrarekin eta frantziarrarekin elkartu beraien artean dituzten interes eta pribilegio berdinegatik. Gure aliatuak ez dira euskal kapitalistak, langileria eta gazteria baizik, gizartea eraldatzeko eta mota guztietako zapalkuntzekin amaitzeko indarra eta borroka gaitasuna duten berberak.

KRISI KAPITALISTA GOGORTZEN ARI DA, ERREBOLTA SOZIALAK ERE BAI

Herrialde garatueta, eta Euskal Herriaren kasuan ere bai, krisiaren ondorio larriak ikusi dira: fabrika eta enpresen itxierak, langabezia-

ren gorakada, soldaten jaitsierak, murrizketak eta pribatizazioak hezkuntzan, osasunean eta oinarritzko zerbitzu sozialetan, desberdintasun eta polarizazio soziala... Azken berrogei urteetako ekoizpen iraultzak, informatikako adar berrien hedapenak (Internet, zuntz optikoa...), eta harreman sozial eta ekonomikoen globalizazioak ez dute saihestu gizartearen pobretzea. Miseriaz betetako ozeano honetan, ordea, luxu eta pribilegio guztiak dituen irla txiki bat dago, kapitalistek osatzen dutena.

Hau da mundu osoan klaseko borroka elikatzen duen erregaia. Herrialde osoak txikitua izan dira, milioika pertsonari edozein esperantza kendu zaie eta amildegira bultzatu dituzte. Kapitalismoaren krisi organikoaren elementu guztiak lurrazalera atera dira: militarismoa, gerra basatienak, mota guztietako integrismo erlijiosoa edo auzi nazionalaren larriagotzea. Krisiak zapalduen, langile klasearen, gazteriaren eta erdi mailako sektore zabalen kontzientziak kolpatu ditu. Sistemarengan zegoen konfiantza larriki zauritua izan da. Lana gogor eginda bizi hobea lortuko denaren eta etorkizuneko belarrendiek garapena bermatuta izango dutenaren ideiak haizea hartzera joan dira.

Errekuperazio ekonomikoa ez da zehazten. Herrialde kapitalista garatuak zailtasun handiak dituzte oraindik, eta hodei beltzak ez dira desagertzen. Europako hegoaldeko herrialdeetan egindako sarraskiaren ondoren, Euroguneko ekonomiak gaixo jarraitzen du. Atzeraldiaren larritasunak eta sakontasunak erakusten dute depresio orokor





batetik gertu gabiltzala. Estatu frantziarraren, Alemaniaren, Britainia Handiaren eta Italiaren txanda da orain. Egoera are gehiago okertu da Txinako desazelerazio ekonomikoaren ondorioz. Japoniako ekonomiak berriz estankatuta jarraitzen du. Lehengaien prezioen erorketak, bereziki petrolioarenak, erakusten dute eskaera industrialaren gainbehera eta petrolio esku-ratzeko norgehiagoka basatia. Faktore hauek, burbuila espekulatibo berriek edo Europa eta Ekialde Hurbileko borroka interinperialistek azaltzen dute Errusia, Brasil eta beste herrialde “emergenteen” erorketa gogorra.

Suntsiketa sozialaren haizeteak gertakizun politikoetan parte hartzera bultzatu ditu masak eta ez dute utziko hain erraz hartu duten eskenatokia. Hau da zalantzarik gabe faktore garrantzitsuena. Ez da Europako hegoaldean bakarrik izan, Estatu frantziarrean, Britainia Handian, Belgikan, erritmo ezberdinekin, langile klasea bere zigilua jartzen hasi da gertakizunetan. Greba orokor arrakastatsuak izan ziren 2014ko abenduan Belgikan eta Italian, sektore publikoko mobilizazioak Britainia Handian... Gorkada berriaren zati dira, Grezian bizi den egoera aurreiraultzailearekin gertatzen den moduan.

Syriza gobernura iritsi da Grezian, 36 greba orokor eta sektore eta enpresetako borroka (fabrika okupazioak barne) askoren ondoren. Honak guztiak erakusten du kontzien-

tzia iraultzailea eta antolakuntza mailak modu esanguratsu batean egin duela aurrera. Baina Syrizarren garaipena, lehendabiziko pausoa bakarrik da eraldaketa sozial sakonaren bidean. Kapitalista greziarrrek botere iturri nagusiak mantentzen dituzte: sektore finantzarioaren eta ekoizteko baliabide handien jabetza pribatua eta estatu aparatuen kontrola. Txilen Allenderekin edo Venezuelan Hugo Chaverekin gertatu bezala, burgesiak bere botere ekonomiko osoa eta estatu aparatua erabiliko ditu masen alde eta interes kapitalisten aurka neurriak hartu nahi dituen gobernu sabotatzeko, ezgonkortzeko eta botatzeko.

Tsipras masen mobilizazio iraultzailean bakarrik oinarritu daiteke kapitalista greziarrei eta europarrei aurre egiteko. Erreakzioaren erasoak atzera botatzeko modu bakarra benetako alternatiba sozialista da, langile klasea botere politikoaren eta ekonomikoaren palankak hartzera deituaz. Grezian jokoan dagoena gizartea nork kontrolatzen duen da, kapitalistek edo langileek. Sabotajeari, inbertsioen grebari edo kapitalen ihesari, banku eta enpresa handien nazionalizazioarekin erantzun behar zaie, ekonomiako oinarritzko sektoreak langile klasearen kontrolpean jartzeko. Europako eraso finantzarioei aurre egiteko, berriz, beharrezkoa da langile klase europarraren elkartasunari dei egitea, kontinente osoan Greziako ereduari jarraituz lan-

gileen alde egingo duten gobernuak ezartzeko. Kapitalista europarren mehatxuei aurre egiteko Europako Federazio Sozialistaren alternatiba altza behar da.

PODEMOS ETA BERE PROGRAMA

Euskal Herriko komunikabide askok gorde egin nahi izan duten arren, Greziarekin batera Estatu espainiarra izan da klaseko borroka gorakada gehien bizitu duena. M15 mugimendua inflexio puntua izan zen; ondoren Marea Herrikoia sortu ziren (Zuria, berdea, gorria...), greba orokorrak, etxe kale-ratzeen aurkako PAH plataformaren borroka, duintasun martxak, meatzarien martxak, langile publikoen mobilizazioak, Sindicato de Estudiantesen 19 ikasle greba orokorrak, Gamonaleko altxamendua, pribatizazioaren aurkako osasun publiko madrildarraren garaipena, Coca Colako langileen borroka eta garaipen eredugarria... Gatazka sozialaren maila pasa den mendean 70eko eta 30eko hamarkadetan izandakoaren bakarrik konparatu daiteke.

Borroka hauek guztiek autoantolakuntza handia eta oinarriaren parte hartze zabala izan dute, iniziatiba eta adore bikainarekin eta kontrol demokratikoaren eskaerarekin. Ezkerrerranzko erradikalizazio politikoaren seinale izan da. Urte askoren ondoren, Estatu espainiarrean langile mugimenduaren borroka tresna garrantzitsuak berreskuratu dira: batzarrak, gatazkek zabaltzea, erresistentzia kutxak, klaseko aldarrikapenak... Noski, Podemos erregai honetatik elikatu da. Kapitalismo espainiarraren krisi basatiak, eskuinaren lapurreta politikak, murrizketa sozialek eta ustelkeriak, desberdintasun sozialek, UGT, CCOO eta PSOEko agintarien politika erreformistek, Izquierda Unidaren blokeo burokratiakoak; eta pasibitatea azaldu duten aparatuek gainditu dituen kaleko erantzunak bidea ireki diote Podemos fenomenoari.



Baina Syrizaren kasuan bezala, egin behar dugun galdera honakoa da: Podemos gobernu espainiarrera iristen bada, nola emango die irtenbidea etxe kaleratzei, langabeziari, pobreziari, hezkuntza eta osasun publikoari eta Euskal Herriaren, Catalunyaren eta Galizaren esku-bide demokratikoei?

Esperientziak erakusten duen bezala, kapitalistek presio handia egingo dute murrizketek eta hertsura politikek aurrera jarrai dezaten. Horregatik, ezkertiarra den edozein antolakuntzak, sufritzen ari garen arazoak konpondu nahi baditu, errealitate gordin honi egin beharko dio aurre. Eta lehenago esan dugun bezala, modu bakarra benetako politika sozialista aplikatzea da. Estatu espainiarraren kasuan, Podemosen balizko gobernu batek honelako neurriak hartu beharko lituzke: botere finantzieroen (banka, aseguruak) eta ekonomiako sektore estrategikoak kontrolatzen dituzten talde enpresarial handien desjabetzea (elektrikak, telekomunikabideak, altzairua, zementua...), gizarteak berak sortzen dituen errekurso erraldoi hauek beharrak eta gabeziak konpontzeko erabiltzeko, justizia sozialarentzako oinarri objektibo bakarra den berdintasuna eta ongizatea bermatuz. Gaur egungo estatu aparatua herri antolatua demokratikoki kontrolatu eta kudeatutakoaz ordezkatu beharko litzateke, borroka

ausarta planteatuz Elizako hierarkiaren, ejertzitoaren eta burokrazia politiko, judizial eta polizialaren aurka (hauek baitira kapitalista handien indar laguntzaileak). Eta nola ez, auzi nazionalari aurre egiteko, Podemosek praktikan jarri beharko luke Estatu espainiarrak zapaltzen dituen nazioen autode-terminazio eskubidea.

Gehiengoaren, zapalduen eta langileen zerbitzura egon nahi duen gobernu batek, neurri hauek praktikara eramateko masen mobilizazio eraginkorrean eta parte hartze aktiboan oinarritu beharko du. Horrelako politika batek baka-rrik irekitzen die bidea benetako demokraziari eta sozialismoari.

EUSKAL HERRIA: ERREFORMISMOA EDO SOZIALISMOA

Europako beste herrialdeetan bezala, Euskal Herriaren kasuan ere krisi ekonomikoak ondorio oso gorrak izan ditu milaka langile familiatan. Euskal langileen eta erdi mailako sektoreen gehiengoa egoera hau jasaten ari garen bitartean, batzuk urrezko egiten ari dira gure sufrimenduaren kontura. Hauek kapitalista handiak dira, bai internazionalak eta baita euskal herri-tarrak ere. Neurri guztiak bultzatzen ari direnak dira, eta ondoren gobernuak onartu egiten dituzte, Eusko Jaurlaritzakoa, Nafarroakoa edo Europakoa izan.

Eta Europako kasuan bezala, Euskal Herriko langileek eta gazte-ek erakutsi dute borrokarako borondatea krisia hasi zenetik. Euskal gehiengo sindikalak 2009ko maiatzaren 21ean deitutako greba orokorretik hasita, langile klaseak frogatu du bere borrokarako borondatea mobilizazio eraginkorretara deitua izan denean. Greba orokor eta mobilizazio eraginkor gehiago ez egotearen arrazoia zuzendaritza sindikalen jarrera izan da. Ez diete jarraipena eman orain dela urte batzuk antolatu ziren greba orokor arrakastatsu eta masiboek. Beraz, funtsezkoa da zuzendaritza sindikalek denboran luzatuko den borroka egutegi eraginkor bat antolatzeara, langileen eta gazterien borroka gaitasun guztia benetako errebolta sozial bihurtzeko eta gizartea eraldatzeko nahikoa indar mobilizatzeko.

Eta Syriza eta Podemosen kasuan bezala, ezker abertzalea ere bidegurutze berberean dago. Gure posizioa argi dago: ez dago erdibiderik, edo langileekin programa sozialista defendatuz, ekonomiako funtsezko palankak eta botere ekonomikoa gehiengo zapalduaren eskuetan jartzeko, edo kapitalistekin eta hauen murrizketa planekin.

Zoritxarrez, *Ezker Abertzalearen egokitzapena* dokumentuak bigarren maila batean uzten du sozialismoa. Eta noski, dokumentuan planteatzen denak bere isla du egoera politikoan. EHBilduren programan eta Euskal Bidea eskaintza politikoan sozialismoa hitza azaldu ere ez da egiten.

Langile mugimenduaren historian, mota guztietako justifikazioak jarri dira mahai gainean sozialismoaren eta marxismoaren ideiak alde batetara uzteko. XIX. mendean dagoeneko, Eduard Berstein teoriko erreformista alemaniarrek ideia iraultzaile sozialistak zahartuta zeudela defendatzen zuen. Bere ustez, instituzioetako, parlamentuetako eta udaletxeetako lanarekin bakarrik, pixkana-pixkana erreformak eginez, posible litzatekeela kapitalismoa langile klasearen aldeko sistema bihurtzea, eta baita egunen



batean sozialismora iristea ere. Klaseko borroka eta iraultza sozialista mespretxatzen dituzten teoria hauek zoritxarrez gaur egun ere jarraitu egiten dute, eta ezkerreko antolakuntzetako zuzendaritzetan pisu handia dute.

Bersteinen garaietatik gaur arte, “teoriko” horiek gobernatzeko aukera izan dutenean, sozialdemokraziaren kasuan gertatu den bezala, beti errespetatu izan dute kapitalaren logika, hau da, ez dute auzitan jarri bankuen eta monopolioen boterea. Baina botere eta logika horrekin hausten ez den bitartean, diskurtso “aurrerakoiek” ez dute ezertarako balio. Kapitalismoak ez du funtzionatzen sen onaren, logikaren edo gehiengoaren onuraren oinarriaren arabera. Kapitalaren eta ekoizteko baliabideen jabeen aberastasunaren arabera funtzionatzen du, hauek baitira botere ekonomikoaren, botere politikoa-ren eta Estatuaren palankak kontrolatzen dituztenak. Ez da posible kapitalismoa demokratizatzea, ez da posible aurpegi gizatiarragoa duen kapitalismoa, jendearekin, behartsuekin, ingurumenarekin eta eskubide demokratikoekin boron-datetsua eta errespetagarria izango dena. Gaurko “demokraziaren” atzean, errekurtsu publikoak lapurtzen eta instituzioak bere onurarako erabiltzen dituen kapital finantzarioaren diktadura krudela gordetzen da.

Badago krisi kapitalistaren alternatiba, eta hondamendia eragin duenaren desberdina den beste eredu ekonomiko bat, baina alternatiba hori ez da posible kapitalismoaren barruan. Kalitatezko enplegua sortuko duen, biztanleriaren bizi maila etengabe igoko duen eta gaur egun dauden errekurtsu ekonomiko eta teknologiko ikaragarriak gehiengoaren beharrak konpontzeko erabiliko dituen ekonomia bat posible da. Baina ekonomia hori langileen kontrolpean dauden ekoizteko baliabideen planifikazioarekin eta kontrol demokratikoarekin lor daiteke soilik, hau da, ekonomia eta gizarte sozialista baten oinarriak jarrita. Orain dela 150 urte baino



gehiago sozialismoaren aldeko borroka piztu zuten eta langile mugimenduari oinarri politiko bat eman zioten arrazoiek gaurkotasun osoa izaten jarraitzen dute. Helburu honek lehen unetik txertatu zuen bere banderan mota guztietako zapalkuntzen aurkako borroka, zapalkuntza nazionala barne.

Klaseko alternatiba sozialista eta internazionalista defendatzeak Euskal Herriaren kausa defendatzea esan nahi du, bere benetako askatasun nazionala, burgesia euskal herritarra, espainiarra edo frantziarra sekula bilatuko ez dutena. Ez da posible askatasun nazionalaren lehen etapa bat izatea eta sozialismoaren beste bat ondoren. Euskal burgesiaren gidaritzapean, edo kapitalista den Euskal Herria “independente” baten barnean, aurrean ditugun arazo guztiek jarraituko lukete.

Kapitalismopean, burgesiaren menpe, hau espainiarra, euskal herritarra edo frantziarra izan, ez dago aukerarik Euskal Herriaren eskubide demokratikoak beren osotasunean lortzeko, horien artean autodeterminazio eskubidea eta lurralde batasuna. Sistema kapitalista bera da munduko nazio askok uneren batean izan zezaketen subiranotasun apurra suntsitzen ari dena. Ez da posible subiranotasun politikoa kapitalaren diktaduraren oinarripean.

Autodeterminazio eskubidea eta lurralde batasuna sistema kapita-

listaren aldean erabat ezberdina den marko politiko eta ekonomiko batean bakarrik ase daitezke erabat. Aldarrikapen demokratiko hauen aldeko borroka arrakasta izan dezan, beharrezkoa da gizartearen aldaketa sozialistari lotuta joatea eta honen motorra Euskal Herriko langile klasea izatea Estatu espainiarreko, Estatu frantziarreko eta Europako klaseko anai-arrebeekin batera.

Horregatik, funtsezkoa da ezker abertzaleak sozialismoaren bandera altxatzea inoiz baino indar handiagoarekin. Ezker abertzaleak langile klasearengan eta gazteriarengan bakarrik izan behar du konfiantza, hauen borroka gaitasunean. Ezker abertzaleak gehiengoaren babesa politika iraultzailea defendatuz irabazi behar du, eta irabaz dezake: langile klasearen batasuna mota guztietako zatiketen gainetik; autodeterminazio eskubidearen defentsa eta konplexurik gabe enpresa handien eta bankaren desjabetzea planteatuko lukeen programa sozialista, langileok gure izerdiarekin sortzen dugun aberastasuna biztanleriaren gehiengo, enpleguak, hezkuntza, osasuna, hizkuntza, kultura eta gure familien etorkizuna defendatzeko izan dadin. Gizakiaren sormen guztia erabiliko lukeen alternatiba horren izena sozialismoa da, eta bera da Euskal Herriaren benetako askatasuna errealtate bilakatu dezakeena.

'Ezker Abertzalearen egokitzena' argitalpenaren harira

Askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka ezin dira bereizi

Pasa den otsailean Sortuk abiatutako Iratzar Fundazioak *Ezker Abertzalearen egokitzena* dokumentua argitaratu zuen. Orain arte Ezker Abertzaleak independentziaren eta sozialismoaren aldeko borroka batera zihoazela defendatu du, baina dokumentu honetan independentziari lehentasuna ematen zaio. Gure ustez, ordea, sistema kapitalistarekin amaitzeak lehentasuna izan behar du honek sortzen dituen zapalkuntza nazional eta sozialarekin amaitzeko. Era berean, euskal burgesiarekin aliatuta, lehendabizi independentzia lortzearen planteamentua desegokia dela defendatzen dugu.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Dokumentu honetako sozialismoari buruzko atalean zati hauek daude, besteak beste: "Bere proiektio sozialistan,

Ezker Abertzaleak oso argi dauka zer ez duen izan nahi, eta, sozialista izanik ere, ez hain argi zer izan behar dugun espazio ideologiko horretan. Ez dugu "ezker zaharra" izan nahi, ezta herri klaseei traizio



egingo dien indar politiko erreformista bat ere. Bi espazio horien artean garatu nahi dugu gure sozialismo eredua" (...) "Ezker Abertzaleak inoiz ez du onartu, eta orain ere ez du onartzen, Historiak gainditu dituen metodoak, garabideak eta azterketak erabiltzen dituen sozialismo eredu bat" (...) "Aurreko etapen, orduko konfigurazioaren ondorioz, independentzia eta sozialismoa denbora plano berean kokatzeko ez zigen kontraesanik sortzen. Gaur egun, ordea, komenigarria izango litzateke helburuak argitzea

12. ORRIAN JARRAITZEN DU

Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Laguniezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!
JARRI HARREMANETAN: euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Laguniezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista